

AHALERA

*Eskemak sinplifikatuak daude aditzen komunztadura ulertzeko.

ORAINALDIA

NOR

AHALERA ORAINALDIA NOR		
NAITE	KE	
HAITE	KE	
DAITE	KE	
GAITEZ	KE	
ZAITEZ	KE	
ZAITEZ	KE	TE
DAITEZ	KE	

Adibideak:

1. Ni etxera joan **naite**ke.
2. Gu hamaiketakoa hartzera etor **gaitez**ke.
3. Mikel okindegira hurbil **daite**ke.
4. Zu oso **kontent** egon **zaitez**ke, dena gainditu duzulako.
5. Puzzle berri bat egiten has **gaitez**ke **gu**.
6. **Zuek**, gogor lan egiten baduzue, **edozein gauza** izan **zaitez**kete.

NOR – NORI

AHALERA ORAINALDIA NOR - NORI			
NAKI	DA	KE	
HAKI	A / NA	KE	
DAKI	O	KE	
GAKIZKI	GU	KE	
ZAKIZKI	ZU	KE	
ZAKIZKI	ZUE	KE	TE
DAKIZKI	E	KE	

Adibideak:

1. Kontuz, Patxiri esan diote azterketan kopiatu duzula, eta joan **dakizuke**. (**Patxi zuri**)
2. **Niri laranja zukua** eror **dakidake**, presaka banabil.
3. **Andoniri Pepa** hurbil **dakioke** azalpen eske.
4. **Guri Errege Magoek** oparitu **dizkiguten jostailu guztiak** hauts **dakizkiguke**.
5. **Spagettiak** eror **dakizkizuke zuri**, horrela jarraituz gero.
6. **Ni Mariari** hurbil **nakioke**, laguntza behar badu.
7. **Gu zuei** bisitan joan **gakizkizueke**.
8. **4. mailako ikasleak guri** diru bila joan **dakizkiguke**.
9. **Zuek haiei** gertura **zakizkiekete** futbol partida bat jolasteko.

NOR – NORK

AHALERA ORAINALDIA NOR - NORK			
NAZA	KE		T
HAZA	KE		K / N
DEZA	KE		---
GAITZA	KE		GU
ZAITZA	KE		ZU
ZAITZA	KE	TE	ZUE
DITZA	KE		TE

Adibideak:

1. Guk bizikleta berri bat eros dezakegu.
2. Nik Pepe kotxez eraman dezaket.
3. Zuek baloiak gelara eraman ditzakezue.
4. Pepak ni jipoi nazake---, handiagoa baita.
5. Nahi dudanean, Peio ikus dezaket nik.
6. Gure gurasoak zarete, eta horregatik guk zuek batzuetan maita eta gorrota zaitzaketegu aldi berean.
7. Aizue, kontuz puxikekin! Busti gaitzakezue. (zuek gu)

NOR – NORI – NORK

	AHALERA ORAINALDIA NOR – NORI - NORK		
DIEZA	DA	KE	T
	A / NA	KE	K / N
	(I)O	KE	---
DIEZAZKI	GU	KE	GU
	ZU	KE	ZU
	ZUE	KE	ZUE
	(I)E	KE	TE

Adibideak:

1. Andonik zuri erosi duzun guztia kotxez eraman diezazuke ---.
2. Zuk Maiteri eraztun polit hori eros diezaiokezu.
3. Maitek zuri praka beltzak opari diezazkizuke---.
4. Irakasleek guri gaindi diezazkigute azterketa guztiak, hala nahi badute.
5. Dei diezaiokezu zuk amari etor dadin. (Deitu nor-nori-nork motako aditza da hegoaldean)
6. Guk lanari ekin diezaiokegu ahalik eta azkarren bukatzeko. (Ekin nor-nori-nork motako aditza da)
7. Lapur horri etxeraino jarrai diezaioket nik, eta gero poliziari dei diezaioket. (Jarraitu nor-nori-nork motako aditzak da)
8. Uste dut partida guztiak oso erraz irabaz diezaiekegula. (Guk haiei. Irabazi aditza garaitu esanahiarekin nor-nori-nork motakoa da)

IRAGANA

NOR

AHALERA IRAGANA NOR			
NINTE	KE		EN
HINTE	KE		EN
ZITE	KE		EN
GINTEZ	KE		EN
ZINTEZ	KE		EN
ZINTEZ	KE	TE	N
ZITEZ	KE		EN

Adibideak:

1. Gu mendira joan gintezkeen, baina ostatuan gelditu ginen kartetan jolasten.
2. Maria eta Peio porretatik etor zitezkeen, baina Parisen gelditu ziren lagun batzuekin.
3. Zuek igerilekuan lasai-lasai sar zintezketen, nire izebarena baita, eta baimena eman zidan.
4. Koadrilako lagunekin joan ez bazina, etxeko lana has gintezkeen gu.
5. Diru guztia xahutu ez bahu, zinemara joan hintekeen. (Zu)
6. Hilda egon nintekeen, kotxe horrek harrapatuz gero. (Ni)

NOR – NORI

	AHALERA IRAGANA NOR - NORI			
NENKI	DA	KE		EN
HENKI	A / NA	KE		EN
ZEKI	O	KE		EN
GENKIZKI	GU	KE		EN
ZENKIZKI	ZU	KE		EN
ZENKIZKI	ZU E	KE	TE	N
ZEKIZKI	E	KE		EN

Adibideak:

1. Ni zuei joan nenkizuekeen arte, ez zenidaten sinetsi.
2. Pasa den larunbatean ni zuri etxeraino hurrera nenkiokeen, eta orain ez zinateke zigorturik egongo.
3. Gu Peperi hurbil genkizkiokeen, baina ez zigun kasurik egin.
4. Zuri ikasteko estrategia berriak erabiltzea lagungarri gerta zekizukeen.
5. Koro eta Julian guri etor zekizkigukeen dena argitzera, baina zera!, nahiago izan zuten azpijokuetan jarraitzea.
6. Zuek niri gela biltzen laguntzera etor zenkizkidaketen, baina eskakeatu egin zineten.
7. Ni zuri ariketa azaltzen ari nenkizukeen, baina gaizki portatu zinenez ez nuen egin. (-TZEN ARI egitura)
8. Ni ikasleei zuztentzen ari nenkiekeen, baina uste nuen hoberena zela egun batzuk pasatzen uztea dena konpontzeko.

NOR – NORK

AHALERA IRAGANA NOR - NORK	
NOR: 3. PERTSONA	
NOR: HURA	NOR: HAIEK
NEZAKEEN	NITZAKEEN
HEZAKEEN	HITZAKEEN
ZEZAKEEN	ZITZAKEEN
GENEZAKEEN	GENITZAKEEN
ZENEZAKEEN	ZENITZAKEEN
ZENEZAKETEN	ZENITZAKETEN
ZEZAKETEN	ZITZAKETEN

AHALERA IRAGANA NOR - NORK				
NOR: 1.go eta 2. PERTSONAK				
NINTZA	KE		DA	N
HINTZA	KE		A / NA	N
()	KE		---	EN
GINTZA	KE		GU	N
ZINTZA	KE		ZU	N
ZINTZA	KE	TE	ZUE	N
()	KE		TE	N

Adibideak:

NOR: 3. PERTSONA denean:

1. Lagunek **afaria** egin **zezaket**en, baina pote batzuk hartu ondoren ahaztu zitzaien.
2. Aitak **kotxe berri hori** eros **zezake**en, baina orain, krisialdiarekin, ezin du.
3. Guk **kromoak** alda **genitzake**en, baina oferta ez zen espero genuena.
4. Hik **hitz** egin **hezake**en. Zergatik ez zenuen egin?
5. Nik ezin **nezake**en **matematika** suspenditu, eta horregatik ikasi nuen.
6. Zuek ezin **zenezaket**en **lorik** egin, tenperatura altuegia zegoelako.
7. Hik **nahi adina gezur** asma **hezake**en, ez baitziren ezertaz enteratzen.
8. Haiek **irakasgai guztiak** gaindi **zitzaket**en, baina parrandan ibili nahiago izan zuten.

NOR: 1.go edo 2. PERTSONA denean:

1. Zuk **gu** erraz jo **gintzake**zun, baina orain inola ere ez.
2. Diskotekatik, **nork** ekar nintzake---en **ni** kotxez? Ez nuen inor ezagutzen.
3. Eta **hi** **nork** maita hintzake---en? Tuntuna baino tuntunago zeunden.
4. Zuek **gu** busti **zintzaket**egun ur-puxika horiekin.
5. Hiru urtetxo genuenean, **zuk** **gu** altxa **zintzake**gun biak batera.

NOR – NORI – NORK

AHALERA IRAGANA NOR - NORI - NORK				
NIEZAZKI	DA	KE		EN
HIEZAZKI	A / NA	KE		EN
ZIEZAZKI	IO	KE		EN
GENIEZAZKI	GU	KE		EN
ZENIEZAZKI	ZU	KE		EN
ZENIEZAZKI	ZUE	KE	TE	N
ZIEZAZKI	IE	KE	TE	N

Adibideak:

1. Zuk aitatxori praka polit horiek eros zeniezazkioken.
2. Peiok erosi nuen telebista kotxez eraman ziezadakeen. (Niri)
3. Pasabidean baloiarekin ibiltzeagatik, baloia ken niezazukeen. (Nik zuri)
4. Haiek musuak eman ziezazkiguketen.
5. Guk dei egin geniezaiokeen.
6. Zuek niri liburu guzti hauek lor zeniezazkidaten.

ALEGIAZKOA

NOR

AHALERA HIPOTETIKOA NOR		
NINTE	KE	
HINTE	KE	
LITE	KE	
GINTEZ	KE	
ZINTEZ	KE	
ZINTEZ	KE	TE
LITEZ	KE	

NOR – NORI

	AHALERA HIPOTETIKOA NOR - NORI		
NENKI	DA	KE	
HENKI	A / NA	KE	
LEKI	O	KE	
GENKIZKI	GU	KE	
ZENKIZKI	ZU	KE	
ZENKIZKI	ZU E	KE	TE
LEKIZKI	E	KE	

NOR – NORK

AHALERA HIPOTETIKOA NOR - NORK	
NOR: 3. PERTSONA	
NOR: HURA	NOR: HAIEK
NEZAKE	NITZAKE
HEZAKE	HITZAKE
LEZAKE	LITZAKE
GENEZAKE	GENITZAKE
ZENEZAKE	ZENITZAKE
ZENEZAKETE	ZENITZAKETE
LEZAKETE	LITZAKETE

AHALERA HIPOTETIKOA NOR - NORK			
NOR: 1.go eta 2. PERTSONAK			
NINTZA	KE		T
HINTZA	KE		K / N
()	KE		---
GINTZA	KE		GU
ZINTZA	KE		ZU
ZINTZA	KE	TE	ZUE
()	KE		TE

NOR – NORI – NORK

AHALERA IRAGANA NOR - NORI - NORK			
NIEZAZKI	DA	KE	
HIEZAZKI	A / NA	KE	
LIEZAZKI	IO	KE	
GENIEZAZKI	GU	KE	
ZENIEZAZKI	ZU	KE	
ZENIEZAZKI	ZUE	KE	TE
LIEZAZKI	IE	KE	TE